## Pribatuen iragarpenak

**GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA**

DEIALDIA, Ohiko Batzarre Nagusirakoa. 17987

# Xedapen Orokorrak

**OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

**Zk-5480**

254/1996 DEKRETUA, azaroaren 12koa, Euskal Autonomi Elkarteko herri-zorra, barnekoa, amortizagarria, obligaziotan eratua eta hamazortzi mila milioi pezetakoa (18.000.000.000), jaulkitzen duena.

Euskal Autonomi Elkartearen 1996ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 29ko 6/1995 Legearen 8. ataleko 2. idazatian eman zitzaion baimena Eusko Jaurlaritzari, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren proposamenez, Euskal Autonomi Elkarteko herri-zorra jaulkitzeko. Goitik jota 66.135.000.000 PTAra artekoa izango da eta inbertsioak finantzatzea da bere helburua.

Baimen horretaz baliatuz, eta koordinatze lanak burutu eta gero, bidezkoa da Euskal Autonomi Elkarteko herri-zorra jaulkitzea; barnekoa, amortizagarria eta obligaziotan eratua izango da, hamazortzi mila milioi pezetakoa (18.000.000.000).

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko azaroaren 12an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Jaulkipenaren diruzenbatekoa.

## Anuncios Particulares

**CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIÁN**

CONVOCATORIA de Asamblea General Ordinaria. 17987

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

**N°-5480**

DECRETO 254/1996, de 12 de noviembre, por el que se dispone la emisión de Deuda Pública de Euskadi, interior y amortizable, formalizada en obligaciones, por importe de dieciocho mil millones (18.000.000.000) de pesetas.

La Ley 6/1995, de 29 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1996, en su artículo 8.2, autoriza al Gobierno Vasco para que, a propuesta del Departamento de Hacienda y Administración Pública, emita Deuda Pública de Euskadi hasta una cuantía máxima de 66.135.000.000 pesetas con la finalidad de financiar inversiones.

En uso de la citada autorización, procede disponer la emisión de Deuda Pública de Euskadi, interior y amortizable, formalizada en obligaciones, por importe de dieciocho mil millones (18.000.000.000) de pesetas, una vez cumplido el correspondiente trámite de coordinación.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Hacienda y Administración Pública, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 12 de noviembre de 1996,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Importe de la emisión.

Euskal Autonomi Elkartearen 1996eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 6/1995 Legearen 8. ataleko 2. idazatian Jaurlaritzari emandako baimenaz baliatuz, Euskal Autonomi Elkarteko herri-zorra jaulkitzea erabakitzen da, barnekoa, amortizagarria eta obligaziotan eratua, hamazortzi mila milioi pezetakoa (18.000.000.000).

*2. atala.–* Herri-zorra gauzatzeko era.

Herri-zorra obligaziotan gauzatuko da, eta bakoitzaren balio izendatua 1.000.000 PTA izango da; Bilbaoko Balore Azokako Elkarte Kudeatzailearen Konturako Ohartarazpenen Zerbitzuak kudeatzen duen kontabilitate erregistroan oharrak eginez errepresentatuko dira obligazio horiek.

*3. atala.–* Jaulkipenaren ezaugarriak.

1.– Korritu tasa eta jaulkipen eguna Ogasun eta Herri Administrazio Sailak finkatuko ditu. Jaulkipen eguna ordainketa egunarekin bat etorriko da, ekonomi ekitaldi honetako azaroaren 18tik abenduaren 5era bitartean.

2.– Obligazioak parean jaulkiko dira.

3.– Jaulkipenaren egunetik kontatzen hasita, urtero sortu eta ordainduko dira korrituak.

4.– Jaulkipenaren egunetik hamar urtera amortizatuko dira obligazioak parean.

*4. atala.–* Zergekiko onurak.

1.– Dekretu honen bidez jaulkitako obligazioek jaraunspenez edo legatuz hartzen direnean, jarraian aipatutako zerga hori arautzen duten arauetan ohartemandako murrizketa izango dute Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Oinarri Zergagarrian.

2.– Ezargarri diren arauek murrizketa hori aurrikusi arren, murrizketa horren ezaugarriak berariaz ezartzen ez badituzte eta murrizketa izateko eskubidea duten herri-zorren jaulkipenari egokitzeko agintzen badute, ehuneko 90ekoa izango da portzentaia, baldin eta kausatzailearen ondarean gutxienez bera hil baino urtebete lehenagotik egon badira obligazio horiek.

*5. atala.–* Konputagarritasuna.

Dekretu honen bidez baimentzen diren herri-zorraren jaulkipeneko obligazioei, Elkarrenganako Bermedun Sozietateen, Aseguru Pribatuetarako Erakundeen, Gizarte–Emendiotarako Borondatezko Erakundeen eta Estatuko herri–zorraren konputagarritasuna berehala aitortuta izan dezaten antzeko beste erakundeen koefizienteetan egin beharrekoa den inbertsioaren ondorioetarako balore egokiak direla onartzen zaie.

*6. atala.–* Jaulkipenaren aseguramendua, ordainketa eta gastua.

1.– Ogasun eta Herri Administrazio Sailak jaulkipen baloreen harpidetza aseguratu dezake. Dagokion aseguramendu kontratua izenpetuko du horretarako habilitatuta dauden entitateekin, baloreen merkatuan indarrean dauden arauei jarraiki.

En uso de la autorización concedida al Gobierno en el artículo 8.2 de la Ley 6/1995, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1996, se acuerda la emisión de Deuda Pública de Euskadi, interior y amortizable, formalizada en obligaciones, por importe de dieciocho mil millones (18.000.000.000) de pesetas.

*Artículo 2.–* Instrumentación de la Deuda Pública.

La Deuda Pública se formalizará en obligaciones de 1.000.000 de pesetas de valor nominal cada uno, representados mediante anotaciones en cuenta en el registro contable gestionado por el Servicio de Anotaciones en Cuenta de la Sociedad Rectora de la Bolsa de Valores de Bilbao.

*Artículo 3.–* Características de la emisión.

1.– El tipo de interés y la fecha de emisión se determinarán por el Departamento de Hacienda y Administración Pública. La fecha de emisión, coincidente con la fecha de desembolso, deberá estar comprendida entre el 18 de noviembre y el 5 de diciembre del presente ejercicio.

2.– Las obligaciones se emitirán a la par.

3.– El devengo y pago de intereses se realizará anualmente, a contar desde la fecha de emisión.

4.– Las obligaciones se amortizarán, a la par, al décimo año de la fecha de emisión.

*Artículo 4.–* Beneficios fiscales.

1.– Las adquisiciones por herencia o legado de las obligaciones emitidas en virtud de este Decreto gozarán en la Base Imponible del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones de la reducción que se prevea en las correspondientes normas reguladoras del Impuesto.

2.– En el caso de que la norma reguladora aplicable prevea dicha reducción, pero no establezca explícitamente las características de la misma y se remita a las condiciones de emisión del endeudamiento público con derecho a ella, el porcentaje será el noventa por ciento, siempre que dichas obligaciones hubiesen permanecido en el patrimonio del causante con una antelación mínima de un año respecto al día de su fallecimiento.

*Artículo 5.–* Computabilidad.

Las obligaciones de la emisión de Deuda Pública que se autoriza por el presente Decreto tendrán la consideración de valores aptos a los efectos de inversión necesaria en los correspondientes coeficientes de las Sociedades de Garantía Recíproca, de las Entidades de Seguro Privado, de las Entidades de Previsión Social Voluntaria y de aquellas otras entidades similares que tengan reconocida automáticamente la computabilidad de Deuda Pública del Estado.

*Artículo 6.–* Aseguramiento, desembolso y gasto de la emisión.

1.– El Departamento de Hacienda y Administración Pública podrá asegurar la suscripción de los valores de la emisión mediante la rúbrica del correspondiente contrato de aseguramiento con entidades habilitadas para tal fin según la normativa vigente de mercado de valores.

2.– Jaulkipenaren entitate aseguratzaileek, aurreko idazatian aipatutako aseguramendu eta kokapen kontratuaren arabera, eurei dagozkien zenbatekoak ingresatuko dituzte, jaulkipen egunean, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusian.

3.– Betetako lanagatik entitate aseguratzaileek jasoko dituzten komisioen zenbatekoa hitzarmenduko da kontratu horretan.

*7. atala.*– Korrituak ordaintzeko jardunbidea.

1.– Jaulkipen honetako korrituen ordainketa, Bilbaoko Balore Azokako Elkarte Kudeatzailearen Konturako Ohartarazpenen Zerbitzuaren bidez, zerbitzu horretan parte hartzen duten entitateen bidez eta ordainketak bideratzen lankidetza eskaintzen duten entitateen bidez egingo da.

2.– Korrituen ordainketa ofizioz egingo du Ogasun eta Herri Administrazio Sailak; ahalik lasterren egin ere, ordainketen mugaegunak erarik zehatzenean betetzeko.

3.– Konturako Ohartarazpenen Zerbitzuak, hartara, mugaegunean edo, hori Bilbaon jaieguna bada, hurrengo astegunean ordainduko dizkie korrituak atxikitako entitateak izan eta balore kontuetako titular direnei, dauzkaten saldoengatik, bai bereak zein besteren batzuenak izan; ordainketa zuzenean edo eskudiruko konpentsatzailearen bidez egingo da. Entitate horiek arduratuko dira obligazioen titularrei ordainketak helarazteko.

4.– Mugaegunean, korrituak ordaintzeko oinarri lez hartzen diren obligazioen saldoen zerrenda bidaliko dio Ogasun eta Herri Administrazio Sailari Konturako Ohartarazpenen Zerbitzuak, entitate partehartzaileei dagokien zerrenda alegia.

*8. atala.*– Amortizazioak ordaintzeko jardunbidea.

Amortizazioak ordaintzeko jardunbidea, zazpigarren atalean ezarritako berbera izango da, baina korrituak hitza azaltzen den lekuan amortizazioak ulertu behar da.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Baimena.

Dekretu hau garatu eta betetzeko baimena ematen zaio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari.

*Bigarrena.*– Ondorioak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko azaroaren 12an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri
Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

2.– Las entidades aseguradoras de la emisión ingresarán el día correspondiente a la fecha de emisión a nombre de la Tesorería General del País Vasco, la cantidad que corresponda a cada una de ellas en virtud del contrato de aseguramiento y colocación mencionado en el apartado anterior.

3.– En dicho contrato se concertará, asimismo, el importe de las comisiones que recibirán las entidades aseguradoras por el ejercicio de su labor.

*Artículo 7.*– Procedimiento para el pago de intereses.

1.– El pago de intereses de esta emisión se realizará a través del Servicio de Anotaciones en Cuenta de la Sociedad Rectora de la Bolsa de Valores de Bilbao, S.A., de las entidades participantes en el mismo y de aquellas otras que colaboren en la canalización de los pagos.

2.– El pago de los intereses se realizará de oficio por el Departamento de Hacienda y Administración Pública con la suficiente antelación para proceder al pago puntual de los vencimientos.

3.– En la fecha de vencimiento, o al día siguiente hábil si éste es festivo en Bilbao, el Servicio de Anotaciones en Cuenta realizará, directamente o a través del compensador de efectivo, el pago de intereses, por los saldos que mantengan, tanto propios como de terceros, a las entidades adheridas titulares de cuentas de valores. Dichas entidades harán llegar los pagos correspondientes a los titulares de las obligaciones.

4.– El día del vencimiento, el Servicio de Anotaciones en Cuenta enviará al Departamento de Hacienda y Administración Pública la relación de saldos de obligaciones de las entidades participantes que sirven de base para el pago de intereses.

*Artículo 8.*– Procedimiento para el pago de amortizaciones.

El procedimiento para el pago de amortizaciones será el mismo que el establecido en el artículo séptimo, con la salvedad de que deben entenderse amortizaciones donde dice intereses.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Autorización.

Se autoriza al Consejero de Hacienda y Administración Pública para el desarrollo y ejecución de este Decreto.

*Segunda.*– Efectos.

Este Decreto surtirá efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de noviembre de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda
y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.